

Unitateak eta zatikiak batzea eta kentzea


ERREPARATU IRUDIARI:

Litro bat gehi litro erdi bat berdin hiru litro erdi.


$$1 + \frac{1}{2} = \frac{2}{2} + \frac{1}{2} = \frac{3}{2}$$

Unitate bat eta zatiki bat batzeko, unitatea zatikiko izendatzailean adierazten den adina zatitan zatituko dugu, eta, gero, bi zatikiak batuko ditugu.

Bizkotxo oso bat ken bizkotxoaren hiru laurden bizkotxoaren laurden bat da.


$$1 - \frac{3}{4} = \frac{4}{4} - \frac{3}{4} = \frac{1}{4}$$

Unitate bati zatiki bat kentzeko, unitatea zatikiko izendatzailean adierazten den adina zatitan zatituko dugu, eta, gero, bi zatikien arteko kenketa egingo dugu.

IKASI, ARIKETA GUZTIAK EGITEKO BEHARKO DUZUE: (KOLOREEI BEGIRATU)

Zenbakitzailea lortzeko izendatzailea bider unitatea egin behar da


$$3 \times 4 = 12$$
$$3 - \frac{5}{4} = \frac{12}{4} - \frac{5}{4} = \frac{7}{4}$$


Izendatzailea agertzen denaren berdina izango da.


Kasu honetan 4


1. ARIKETA:


Erreparatu goiko irudiari eta ebatzi:


a)  $1 + \frac{2}{6} = \frac{\square}{6} + \frac{\square}{6} = \frac{\square}{\square}$

d)  $1 - \frac{1}{4} = \frac{\square}{4} - \frac{\square}{4} = \frac{\square}{\square}$

b)  $1 + \frac{2}{4} = \frac{\square}{4} + \frac{\square}{4} = \frac{\square}{\square}$

e)  $2 + \frac{3}{4} = \frac{\square}{4} + \frac{\square}{4} = \frac{\square}{\square}$

c)  $2 - \frac{5}{6} = \frac{\square}{6} - \frac{\square}{6} = \frac{\square}{\square}$

f)  $2 - \frac{3}{4} = \frac{\square}{4} - \frac{\square}{4} = \frac{\square}{\square}$

2. ARIKETA:

Ebatzi: (Ikusi adibidea eta berdín idatzi. Ez utzi tarterik zenbakien artean)

a) $1 + \frac{2}{3}$

$3/3 + 2/3 = 5/3$

b) $1 + \frac{3}{5}$

c) $1 + \frac{4}{7}$

d) $1 + \frac{5}{6}$

e) $1 + \frac{2}{8}$

f) $1 + \frac{4}{6}$